

HOLAXE BIZI DA
XOLA




BERNARDO ATXAGA

MARRAZKIAK: MIKEL VALVERDE

erein

HOLAXE BIZI DA
XOLA



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2023ko martxoan

Edizio lana:

Asun Garikano

Azala eta liburuaren diseinua:

Erein

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Mikel Valverde

© Bernardo Atxaga

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-878-2

L.G.: D 112-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net

HOLAXE BIZI DA
XOLA



BERNARDO ATXAGA

MARRAZKIAK: MIKEL VALVERDE

erein

EDUKIA



– 7 –

Xolak badu lehoien berri

– 47 –

Xola eta basurdeak

– 95 –

Xola eta Angelito

– 137 –

Xola eta Ameriketako izeba

– 185 –

Xola eta lapurra

XOLAK

BADU LEHOIEN BERRI







Egun batez, Afrikan luze egondako lagun bat etorri ziztaion bisitan Grogó jaunari. Etxean sartu orduko kontu-kontari hasi zen, eta Afrika aldean ikusitako gauza asko eta askotaz hitz egin zuen: Sudani eta Zimbabweri buruz hitz egin zuen, Keniaz eta Nigeriaz, batusi izeneko ehiztari handiez, sudurrean urrezko eraztun bat eramaten duten zuluez, eta baita Abebe-Aba-ba-Abebe zeritzan Etiopiako buruzagi bati buruz ere. Eta gauza horietaz guztiez hitz egin ondoren, oihanaz eta lehoiez hitz egin zuen.



—Lehoia animalia dotorea da –esan zuen lagunak—. Indartsua da, boteretsua da, noblea da. Oihaneko Erregea da. Erraz menderatzen du beste edozein animalia. Erraz zirtzilatzen du ehiztaria bere bihotzaren azken taupadaz.

Xola erdi lotan zegoen besaulkian, baina bela-
rriak tentetu zituen hobeto entzuteko: zer nolako
animalia zen berarekin halako antza zuen lehoi hura?
Bera ere indartsua zen, boteretsua, noblea. Eta sekula
inorekin borrokatu gabekoa izan arren, sekula ehiztari
bat ikusi gabekoa, den-denak bere beldur ziren. Ani-
malia eta ehiztari guztiek bazekiten, ondo asko jakin
ere, berak, Xolak, zirtzilatu egin zitzakeela bere biho-
tzaren azken taupadaz.





—Hortaz...

—Xolak isatsari eragin zion, dudati—, lehoi bat bezalakoa baldin banaiz, zergatik deitzen didate beti *arratoi-txakur*? Zergatik egiten dute hori Grogok eta beste guztiak?

Zalantza latz horietan murgilduta zegoen Xola, lagunak bisita bukatutzat eman zuenean.

—Etxera lagunduko dizut, lagun —esan zion Grogog jaunak—. Paseo bat emateko gogoia daukat. Zuk etorri nahi al duzu, Xola?

—Nik ez —erantzun zuen berak—. Ez daukat ateratzeko gogorik. Gauza asko dauzkat pentsatzeko.




Bakarrik geratu zenean, Xola konturatu zen Grogoren lagunak liburu bat utzi zuela ahaztuta besaulki gainean, eta lepoa luzatu zuen haren titulua irakurtzeko. Istantean, astindu bat eman zion bihotzak, zeren liburuaren azalean jartzen zuena jartzen baitzuen, eta jartzen zuena zera baitzen: *Lehoia, Oihaneko Erregea*. Huraxe zen, hain zuzen ere, berak behar zuena bere burua hobeto ezagutzeko eta arratoi-txakurra ala lehoia zen jakiteko.



Xolak liburua lehen orrialdean ireki, eta irakurri zuena irakurri zuen, eta irakurri zuenak hala zioen: «Lehoia animalia indartsua da, boteretsua, noblea. Mundu guztiak beldurra dio. Oihaneko Erregea da inolako zalantzarik gabe».

«Denak ados daude, beraz», pentsatu zuen Xolak, Grogoren lagunak esandakoa gogoratzuz.

«Liburu hau goitik behera ikasi behar dut», pentsatu zuen jarraian.



Hartu eta bere gordelekura eramane zuen, jostailuak gordetzen zituen tokira. Gero besaulkian etzan zen berriro, eta bertan geratu zen Grogo jauna etxeratu arte.

—Xola, ikusi al duzu nire lagunaren liburua?
—galdetu zion Grogok—. Ahaztuta utzi du, nonbait.



—Nik ez dut ezer ikusi —erantzun zuen berak.
—Seguru? —galdetu zion berriz Grogok, bai bai-
tzekien gezurri galanta zela.

—Ni bezalako animalia boteretsu eta nobleek ez dugu sekula gezurrik esaten! —adierazi zuen Xolak. Aurreneko aldiz, lehoi-odola sentitzen zuen zainetan.

Egun hartatik aurrera, Xolak oso interes gutxi erakutsi zuen paseatzera ateratzeko. Gogorik ez zeukala esaten zuen, nahiago zuela etxean geratu. Grogro jaunak sorbaldak altxa, ezpainak luzatu, eta bakarrik ateratzen zen.

—Zer darabilzu esku artean, Xola? —galdetu zion azkenean. Izan ere, Xolak hiru egun zeramatzan paseatzera atera nahi ezik.

—Ez darabilt ezer atzapar artean —erantzun zuen Xolak.

Baina bai, bazerabilen zerbait atzapar artean, edo esku artean. Ordurako, Xolak sinetsita zeukan —guztiz eta osoki sinetsita— bera lehoia zela. Ez zen berak asmatutako kontua, liburuak esaten zuena baizik:

«Animalia boteretsu horiek oso nagiak dira. Etzanda pasatzen dute egunaren parterik handiena, eta jan bila joateko baino ez dira jaikitzen».

«Dena bat dator», pentsatzen zuen Xolak.

«Gainera —jarraitzen zuen pentsatzen—, ni beti arratoi-txakur arraroa izan naiz. Amak ere askotan esaten



zidan: “Xola, ez duzu nire alaba ematen. Ni oso txukuna naiz, eta zuk ez duzu gauza bat bere tokian uzten!”».

Orain dena argi zegoen. Bera ezin zen bere amaren alaba izan, bera ezin zen arratoi-txakur txukuna izan. Ezinezkoa zen hori, bera ez baitzen txakurra. Bera lehoia zen. Edo, garbiago esanda, Oihaneko Erregea.

Grogo jauna laster ohartu zen Xolaren jokaera berriaz. Paseoei uko egitez gain, ibilera ere ez zuen lehengoa, orain astiro mugitzen baitzen, astiro eta poliki; burua, berriz, *tortikulis* baleuka bezala altxatzen zuen. Bestalde, haren zaunkei ez zegoen zaunka deitzerik, zeren Xolaren eztarritik ateratzen ziren soinuek tronpetaxo afoniko batetik sortuak ematen baitzuten.



Hori guztia ikusita, Grogo jaunak erabaki zuen gogor egin behar ziola Xolari. Nahi ala ez, paseatzera aterako zuen, kalera irtetera behartuko zuen. Bai horixe, zer demontre, nahikoa zen.

—Goazen parkera paseatzera, Xola. Eta ez ezetzik esan!

—Inork ez dizu ezetzik esan —erantzun zuen Xolak lotsagabekeriarik handienaz—. Nik ere paseo bat eman nahi dut oihanetik.



